

TRINI FOX



Punk Rock, Stoner, Hard Rock edota Rock alternatiboa jorratzen dituen laukotea da **Trini Fox**.

Ezohiko doinuak entzun daitezke bere abestietan. Influentziak talde kaliforniar, suediar eta euskaldunetatik datozkie. Hala ere taldekideen gustu musikaletatik sorturiko musikak osatzen du Trini Foxen doinu eta melodien esentzia.

Zuzenekoetan gaztetasunaren energia nabarmena da, ikuskizun indartsu baina gertukoak eskainiz.

2017ko **Kapapulta Tour** eta 2019ko **Gaztea Maketa Lehiaketan** entzulegoaren sariak aipatzekoak dira. Guztira 5 lan kaleratu dituzte: **Bila Nabil (2016)**, **Letaginak (2017)**, **Ataraxia (2020)**, **Deabrua (2022)**, eta azken lana **Flanagan (2024)**, Gaztain estudioetan grabatua Eñaut Gaztañagaren gidaritzapean. Aipatzekoak ere disko honetan kolaboratu dutenak: Lide Hernando (Liher, Bele), Juanjo Berasain (Ezpalak) eta Zigor DZ.

Taldekideak:

- **Iñaki Zubeldia:** batería eta koroak
- **Iosu Garate:** gitarra eta koroak
- **Suharri Aranburu:** ahotsa eta gitarra
- **Xabier Iñurrieta:** baxua eta koroak

